



**AKORDIOA, 2014ko apirilaren 1eko ( apirilaren 1eko EHAA, 63 zk.) Ebazpenaz deitutako Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraz arduratzen den Epaimahai kalifikatzailearena.**

Goian aipaturiko Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluan ezarritakoaren babesean, ondorengo

### **ZIURTATZEN DU:**

Aipatutako Epaimahaiak 2014ko urriaren 24an izandako bileran ondorengo Erabakiak argitaratzea erabaki duela:

**Lehena.** – Oposizioko bosgarren probako (aurrez aurreko elkarrizketa) behin-behineko emaitzen aurka aurkeztutako erreklamazio guztiak Epaimahai kalifikatzaileak aztertu ondoren eta guztiak atzera bota ondoren, oposizioko bosgarren probako (aurrez aurreko elkarrizketa) emaitzak behin betiko egitea Akordatzen da.

**Bigarrena.** – Hautaketa prozesua gainditu duten pertsonen oposizioko azken kalifikazioa argitaratzea, eta puntuazio totala izango da osatzen duten proba desberdinen batura gehi euskararen ezagutza mailaren baloraziotik lortutako puntuazioa, I. eranskinean agertzen denaren arabera.

**Hirugarrena.-** Hautaketa prozesua gainditu duten, behin-behinekotasunez eta kautelarki onartuak izan diren pertsonen oposizioko azken kalifikazioa argitaratzea, eta puntuazio totala izango da osatzen duten proba desberdinen puntuazio batura gehi euskararen ezagutza mailaren baloraziotik lortutako puntuazioa, II. eranskinean agertzen denaren arabera.

**Laugarrena.-** Gainditutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzea, puntuazioaren arabera dagozkien kalifikazioekin bat etorriz eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten pertsonak adieraziz, III. eranskinean agertzen denaren arabera..

Zerrenda honetan hautaketa prozesua behin-behinekotasunez eta kautelarki onartuak izan diren pertsonak eta izaera horrekin jarraituko duten pertsonak agertzen dira.



**Bosgarrena.-** Interesdunek, aurreko parrafoan aipatutako behin-behineko zerrenda argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, 10 egun balioduneko epea izango dute argitaratutako zerrenda horren aurka aurkeztu ahal izateko erreklamazioak.

Erreklamazioak 945 28 67 55 fax zenbakira edo [xxiv\\_promocion@hsdi.ej-gv.es](mailto:xxiv_promocion@hsdi.ej-gv.es) posta elektronikora bidali beharko zaizkio Epaimahai kalifikatzaileari.

Arkautin, 2014 urriaren 24an.

**Izpta.: Epaimahaiaren idazkaria**